

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak, oro har, hainbat interes edo helbururen inguruan elkartzen diren pertsonen edo erakundeen taldeak dira. Arlo desberdinetan aurki daitezke. Kasu honetan gure gure ideia aurrera eramateko elkarte eta pertsona batzuekin aliatu beharko dugu, jarraian azalduko ditugunak, hau da, lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak egin beharko ditugu.



Hasteko, hasieratik garbi utzi nahi dugu gure enpresa ideiak ez duela dirurik behar funtsezko aliantza gisa, gure beharrezkoak diren tresnak eta gailuak lortu eta gure enpresan bertan montatuko dugulako, konexioak eta abar egin, beraz, ez da aliantza estrategikoa. Horrez gain, gure eskaintzen dugun gailuak (alkohola edo bestelakoak detektatzeko gailua, gidari profesionalen garraioak eta konexioak egiteko tresneria) gaur egungo merkatuan saltzaile bat baino gehiago ditu eta, hortaz, modu ezberdinetatik lor ditzakegu.

Alde batetik, alkohola eta bestelakoak detektatzen dituen gailuak behar ditugu ondoren gidari profesionalen garraioetan jartzeko. Beraz, garbi dago hauek fabrikatzen dituzten enprekin harremanak sortzea beharrezkoa dela, izan ere, gailu honen beharra dugu eta akordio batera iritsi beharko dugu gure ideiak aurrera egin dezan.

Bestalde, legisladoreak funtsezkoak dira, honako hauek baitira legea aldatu dezaketenak eta legea gure alde egotea lortu behar dugu, gure ideiak arrakasta izateko, horregatik, derrigorrezkoa izan dadila lortu behar dugu. Horrez gain, automobilismoari dagokionez, honakoarekin aliantzak sortu behar ditugu, zehazki, garraioen aseguruaren enpresak funtsezkoak izango dira, izan ere, gure gailuaren inguruko arazoren bat sortzen bada seguruaren barruan sartuko litzake eta horrez gain, segurua merkeago lortzeko aukera ere egon daiteke.

Hori gutxi balitz bezala, beste aliantza indartsu bat edukitzea oso garrantzitsua ikusten dugu, zehazki, DGT, honakoa trafikoa legeztatzen duen zuzendaritza gorena da eta enpresa honek gure alde egitea komeni zaigula garbi dago, izan ere, ez du derrigortzen gure produktua aplikatzea garraio guztietan, baina gure proiektuak dituen indarguneak azpimarratuko ditu eta modu horretan, jendea kontzienteagoa izango da eta litekeena da gure proiektuarekin bat egitea.